

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

15/2026 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava foru erakunde autonomoaren estatutuak aldatzea

Apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 12. artikulua lurralde historikoei suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak sortzea, antolatzea eta mantentzea esleitzen dienez, uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomia eratu zen, Jarduera Ekonomiko eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 5. artikulua eskatutako gutxieneko edukiarekin, eta erakunde horren estatutuak berretsiz, zeinak alde aurretik onetsi baitziren Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 238/2026 Erabakiaren bidez.

Erakunde horrek, sortu zenetik eta bere estatutuak onetsi zirenetik, aitortutako eskumenen esparruan jardun du, bai eta haietan ezarritako antolamendu, eginkizun eta prozedura aurreikuspenen esparruan ere. Hala ere, kontuan hartuta harrezkero zenbat denbora igaro den eta zer esperientzia hartu den, bai eta araudian zer bilakaera egon den eta erakunde publikoen gobernantzan zer jardunbide on egon diren ere, komeni da estatutu aurreikuspen jakin batzuk berrikustea eta eguneratzea. Aldaketa proposameneren helburua da eraginkortasuna indartzea, malgutasun handiagoa bermatzea eta Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua teknologia berrietara eta egungo kudeaketa premietara egokitzea. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: deialdi epeen zurruntasuna, berariaz ez jasotzea aukera dagoela kideak ordezkatzeko, baliabide telematikoen erabilera ez eguneratzea eta botoa eskuordetzeko berriazko erregulaziorik ez egotea.

Horiek horrela, urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 9. artikulua arabera, zeinak Arabako Foru Aldundiari esleitzen baitio erakundearen antolaketa eta egitura orokorra, eta 8/2016 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenengoaren arabera, zeinak ahalmena ematen baitio Foru Gobernu Kontseiluari arau testu hori betearazteko eta garatzeko behar diren xedapenak emateko, hari dagokio egin nahi diren estatutu aldaketak onestea.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Foru agindua egiteko, kontuan eduki dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia ere.

Era berean, arau testua koherentea da premia, efikazia eta proportzionaltasun printzipioekin; izan ere, baliabide beharrezko eta nahikoa da berarekin lortu nahi den helbururako, eta ez da beharrezkoa ez den erregulazio bat edo legezko eskakizunak gainditzen dituen erregulazio bat, guztiz kontrakoa baizik. Edukia bat dator lortu nahi den helburuarekin. Segurtasun juridikoaren eta koherentziaren printzipioak ere bermatzen dira, nahikoa justifikatuta gelditzen delako bai ordenamendu juridikoan sartzen dela, bai eta arauak harmonizatzeko premiak oinarri duen interes orokorreko arrazoi bat dagoela ere.

Erantzukizun printzipioak ere bermatzen dira, estatutu aldaketak gauzatzeaz, irisgarritasunaz, sinpletasunaz eta ulergarritasunaz arduratuko diren organoak zehaztuz, idazketa argia eta ulergarria erabiliz eta eraginkortasuneko araugintza teknika egokia erabiliz; izan ere, planteatutako erregulazioak, bere izaeragatik, ez dakar administrazio zama osagarriarik, ez eta alferrikakorik ere administratuentzako, ez eta baliabide publikoen eta gardentasunaren kontsumo handiagorik ere, arau xedapenak haren helburua identifikatzen baitu, xehetasunez azalduta.

Egin nahi diren estatutu aldaketen antolaketa izaera kontuan hartuta, kontsulta publikoaren entzunaldiko izapidetik salbuetsita geratzen da, baina onetsi ondoren ALHAOn argitaratuko da.

Horregatik, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 12. artikuluari 3. apartatua gehitzea, honela idatzita:

“3. Postu hutsak egonez gero, Arabako Foru Aldundiko Larrialdi zuzendariak behin-behinean izendatuko ditu bokal gisa ordezkatzeko dituzten pertsonak, behin betiko izendapenak egin bitartean.”

Bigarrena. Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 18. artikuluko 2. apartatua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

“2. Administrazio Kontseiluaren bilkuren deialdiak aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkie kideei: ohiko bilerenak bi egun baliadun lehenago, gutxienez, eta ezohiko bilerenak egun baliadun bat lehenago.”

Hirugarrena. Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 18. artikuluko 3. apartatua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

“3. Kontseiluaren bilkurak aurretik aurre edo urrutitik egin ahal izango dira.

Urrutitik egiten diren bilkuretan, partaideak hainbat lekutan egon ahal izango dira, betiere bitarteko elektronikoen bidez bermatzen badira pertsona horien nortasuna, beren adierazpenen edukia eta adierazpenak egin diren unea. Halaber, kideen artean komunikazio eta elkarrekintzarako aukera bermatu beharko da unean bertan eta horretarako beharrezko bitartekoak egon beharko dira.

Balitzko bitarteko elektronikoen artean sartuko dira, besteak beste, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.

Orokorrean, eta kontrariorik adierazi ezean, erakunde autonomoaren bulegoetan areto bat egongo da, bitarteko tekniko horiek dituen. Edonola ere, aktan bertan jasota egon beharko da bilera non egin den eta, beraz, erabakiak leku horretan hartu direla ulertuko da.”

Laugarrena. Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 18. artikuluko 4. apartatua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

“4. Administrazio Kontseiluaren bilkura lehenengo deialdian balioz eratzeko ezinbestekoa da kideen gehiengo osoa egotea; bigarren deialdian, ordea, nahikoa da hiru kide, behintzat, egotea, baldin eta bat lehendakaria edo lehendakariordea bada. Quorum hori bilkura osoan zehar mantendu beharko da.”

Bosgarrena. Beste zenbaki bat jartzea Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 18. artikuluko 5. eta 6. apartatuei, zeinak 6. eta 7. apartatuak izango baitira, hurrenez hurren.

Seigarrena. Berriz idaztea Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren estatutuetako 18. artikuluko 5. apartatua. Honela geratuko da idatzita:

“5. Erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira, eta ezingo da eztabaidatu edo erabaki aztergaien zerrendan jarri ez den gairik, salbu eta, Kontseiluko kide guztiak bilduta edo ordezkatura, gehiengoak erabakitzen badu aztergaia presakoa dela.”

Justifikatutako absentziaren edo gaixotasunaren kasuan, Kontseiluko kideek Kontseiluko beste kide bati eskuordetu ahal izango diote botoa, lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez, eta kide bakoitzak ezin izango du ordezkaria bat baino gehiago izan. Eskuordetzearen ingurubarra eta ordezkariaren eta ordezkatuaren identitatea bilkuraren aktan jaso beharko dira.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Argitaratzea.

Halaber, foru dekretu hau eta indarrean dauden estatutuen testuategina Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren gardentasun atarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua

JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE